

## » TELEGRAMA

Otsailaren 21ean iritsiko da aurtengo **Libertimendua** Donapaleura: dantzak, musikak, bertsoak eta zirtzilen antzerkiek osatzen dute ikuskizuna **STOP Ruper Ordorika** Durangoko Plateruena Kafe Antzokian ariko da otsailaren 20an, **Aguxtin Alkhaten** doinuek hasiko duten gauldian **STOP** Kooltur Ostegunak ekimena apustu segurua da Arrasateko Gaztetxean: **McOnak**, **Small Jackets** eta **Akatz** taldeekin emanaldi entretenigarria aurreikusten dugu otsailaren 18an **STOP**

## » DISKOA

## Barrokoz blai



Montse Auzmendi

### Gasteizko Kontzertu Handien Zikloa

FORMA ANTIQVA TALDEA

Zuzendaria: Aarón Zapico.

Bakarlaria: Carlos Mena (kontratenorra)

Bach, Händel eta Vivaldiren obrak.

Gasteizko Principal Antzokia. Otsailaren 2a

Hasi da Gasteizen Kontzertu Handien XI. zikloa. Aurreko urteetan bezala, izen ospetsu eta kalitatezkoak izango ditugu bost saiotan, nahiz eta esan dezakegun, egitaraua ikusita, aurtengoa agian aurrerontu txikiagokoa dela. Bestalde, zikloaren kudeaketa promotore baten eskuetan geratu da eta desberdintasunak ikusten dira, adibidez eskuko programa askoz pobregoetan.

Baina goazen musika aztertzerara. Aldi honetan, antzinako musikan espezializatuta dagoen talde bat izan dugu, Forma Antiqua eta kontratenor onenetako bat, Carlos Mena gasteiztarra. Bai taldeak, bai abeslariak errekonozimendu handia dute mundu osoan, eta Principal Antzokian emandako errezitaldian erakutsi zuten ospe hori merezia dela. Kontrastedun egitaraua eskaini zuten. Alde

batetik, Bachen soiltasuna, eta, bestetik, Vivaldiren eta Händelen musikaltasun fresko eta bizia. Bigarren honetan sentitu genituen artistak erosoago, *à l'aise*'

Saioa hasteko, Bachen *Concerto for oboe d'amore* entzun genuen. Jatorrizko tresnez osatutako taldeak sonoritate eder eta orekatua lortu zuen. Bestalde, oboe bakarlariak abilezia proiektatu zuen bere antzinako instrumentuaren soinu txiki baina beroa. Jarraian *Ich habe genug* (*Nahikoa daukat*) kantata sentitua disfrutatua genuen. Carlos Menak jakin-duriaz erabili zuen bere tinbre bereziko ahotsa, primeran modulatuaz uneoro.

Bigarren zatian beste mundu musikal batean murgildu ginen. Bachen barroko protestanteak ez du zerikusirik Vivaldiren Venezia katoliko eta haragitsuarekin. Händelen *Concerto grosso 10* obra sarrera aproposa zen Vivaldiren kantata eta salmoentzat. *Concerto*, lan dinamikoa, suite frantziar baten antza duena, taxuz interpretatu zuen Aarón Zapicok zuzentzen duen taldeak, doitasunez. Baina plater ederrenak Vivaldiren lanak izan ziren. Konpositore honen *Cantata Cessate, omai cessateren* bizitasuna primeran iritsi zitzaigun, batez ere Menaren abesteko modu eta fraseaketa freskoari esker. Gauza bera esan dezakegu *Salmo 106 Nisi Dominus* obrari buruz. Bertsio distiratsua eta orekatua egin zuten. Propina gisa, Antonio Caldaranen *Magdalena Kristoren oinetan* kantataren zati bat interpretatu zuten. Gozagarria. ■

Forma Antiqua taldea.

